

JAKIN

Zuzenbidea: JAKIN, Arantzazu. Oinati. Gipuzkoa.

Oharra: Adieraz gurutze batekin ondoko hauetatik nahi dituzun liburuak.

JAKIN sorta	pta.
<input type="checkbox"/> 1. Ipar Euskal Herria (agortua)	
<input type="checkbox"/> 2. Salvatore Mitxelena (agortua)	
<input type="checkbox"/> 3. Rikardo Arregi	100
<input type="checkbox"/> 4. Kultura eta Fedea	100
<input type="checkbox"/> 5. Erlijioa hauzipean	100
<input type="checkbox"/> 6. Gure Ikastola	150
<input type="checkbox"/> 7. Koperatibak	110
<input type="checkbox"/> 8. Euskal Herriaren atarian (irteteko) ...	130

JAKIN liburu sorta	pta.
<input type="checkbox"/> 1. Euskal Herriaren Historia	130
F. Zabala	
<input type="checkbox"/> 2. Mintzaira, aurpegia: Gizon!	120
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 3. Iraultzaren hildotik	100
J. Intxausti	
<input type="checkbox"/> 4. Zezenak Errepublikan	100
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 5. Kolakowski	130
J. Arregui, J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 6. Herriraren lekuko	150
R. Arregi	
<input type="checkbox"/> 7. Axular. Mendea, gizona, liburua	120
L. Villasante	
<input type="checkbox"/> 8. Fedearen dinamika	120
P. Tillich	
<input type="checkbox"/> 9. Kultura proletarioaz	130
J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 10. Euskaldunen ipuin harrigarriak	130
M. Etxeberria	
<input type="checkbox"/> 11. Ekaitza	120
J. M. Satrustegi	
<input type="checkbox"/> 12. Iraultzaz	130
J. M. Torrealday	

Ikus, ikas, ekin JAKIN liburuekin!

Suskritoreentzat % 30, %40 eta % 50 merkeago!
 Izena
 Kalea Tel.
 Herria Probintzia

1.000 pta. aurreratuz ordainduko dut.
 Liburu bakoitza ordainduko dut, datozen neurrian.

Edozer gauza kultural

- Gatu beltza da Euskal Herriko gaturik pollitena. Le-papean* xingola* txuri eta guzti.
- Etor zèn eta gero denak, eta Gotzon Miren GARATE jesuitak, aspaldi agindu zizkiguten bi liburu: **Marxez gerozko Marxismoa** zen bat, pentsamendu marxista-ren historia, eta bestea **Marx eta Nazioaren** 2. li-burukia.
 Jendea zain eta zain egon arren, nonbait ez dute eta ez dute inolaz agertu nahi. Ez dakigu, «jesuiten oportunistoari» buruzko hauzi harek bere hatzama-rrak* honeraino luzatzen ote dituen... Edo eta, Azken Judizioko errebelazio harrigarrien artean erakusteko, gorderik gelditu ote diren. Publikoari esplikazioaren bat zor zaio. Edo liburuak, bestela.
- Ala erbi jantzitako gatu bat zen hori ere?
- Txomin PEILLEN Xubero-Paristarraren **Gatu Beltza**, ba-samortu errean ur freskoa bezain gozagarri etorri zai-gu geure lehorte literarioan. (Gatu hau erbia da!) Bai GEROk liburu azalean eta bai PEILLENek barruan, beste Xubero-Paristar bat oroiterazi digute: Jon MI-RANDE.
 Noiz agertuko da pionero eta idazle orijinal honen prosa eta poesiaren bilduma* bat? Jon Miranderi be-re lanen edizio bat zor zaio, hitzaurrre on batekin. Txomin Peillen proposatzen dugu, bilduma eta hitzaur-re egiteko. Zeren* eta, azken finean, irakurleriari Mirande zor baitzaio.
- OSKORRIK hiltzea erabaki du. Eta, erabaki publiko in-portante guztiekin egin behar den moduan, ondo egin du erabaki hori guztioi jakin eraztea. Inork gaizki pen-tsa ez dezan.
 Ondo pentsatzekotan, zer pentsatu beharko litza-teke?
- Aurten sorpresa haundiak eman dizkigu literaturak. Arantxa URRETA-VIZCAYAREN poesiak: biziki onak. Mikel AZURMENDI INTXAUSTIren poesiak: biziki onak. (Eta azkeneko honengatik benetan pozten gaitu hori aitortzeak: zeren eta beste gauza askotan «gus-to» arras* diferentetakoak baikara). Joan Mari LE-KUONAREN poesiak: izugarri biziki onak.
 Eta Bernardo ATXAGAREN teatroa: irudimena orain-dik ez dela hil demostratzen diguna. PEILLENen **ga-tomaquia**: pentsamendu individualista oraindik ez de-la hil demostratzen diguna. Martin UGALDE: egiazko literatura egiten dakien euskaldun bat oraindik gel-ditzen dela demostratzeko.
 Eta gainera: euskaraz oraindik posible da, Luis HARANBURU-ALTUNA hil antzertia bezalako gauza bat publikatzea. (Hori ez da edozer gauzatxo, gero!).
- Baina hori ez da dena: laster, eta euskaraz, inoiz egindako poesiaren lehen lehenengo antologia **dialek-tikoa** agertuko ei* da.
 Oraindik ez dakigu gatu honen kolorea.
- Hala ere, Federiko ENGELS erdaraz baino gaitzagoa da euskaraz. Biba Federiko Engels prusianoaren eus-kara!

BALDATIKA

dezan, daian zaigu, jaku
 digu, deusku zaio, jako
 digute, deuskue zizkiguten, euskuezan
 dizkigu, deuskuz